

HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN (TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAREN BITARTEZ) ETA BEASAINGO UDALAREN ARTEKOA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOTIK PASATZEN DEN DONEJAKUE BIDEARI ATXIKITAKO «IGARTZAKO MONUMENTU MULTZOA» KULTURA-INTERESEKO ONDASUNA MANTENTZEKO ETA ERABILERA TURISTIKORAKO BIRGAITZEKO PROIEKTU JASANGARRIA –EUOPAR BATASUNAK NEXT GENERATION EU FUNTSEN BIDEZ FINANTZATUTAKO SUSPERTZE, ERALDATZE ETA ERRESILIENTZIA PLANAREN ESPARRUKOA– GAUZATZEKO

Gasteizen, sinadura elektronikoaren egunean

BILDU DIRA

Batetik, Javier Hurtado Domínguez, Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua, lehendakariaren irailaren 7ko 30/2020 Dekretuaren bidez izendatua (2020ko irailaren 8ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra ordezkatzuz, eta hitzarmen hau formalizatzeko baimena duena Gobernu Kontseiluaren 2023ko matxoaren 21eko erabakiaren bidez.

Bestetik, Leire Artola Ugalde Beasaingo Udaleko toki-erakundearen alkate-udalburua, erakunde horren ordezkari gisa, Tokiko Gobernu Batzarraren 2020ko abenduaren 22ko erabakiaren ondorioz hitzarmen hau sinatzeko ahalmena izanik.

Alderdiek dagokien ordezkaritza aitortu diote elkarri, hitzarmen hau emateko nahikoa legezko gaitasunarekin betiere; horrenbestez, honako hau

ADIERAZTEN DUTE:

LEHENA.-

2020ko uztailaren 21ean, Europar Kontseiluak Suspertze Planari buruzko Ondorioak eta 2021-2027 aldirako urte anitzeko finantza-esparrua onartu zituen. Neurri horiek osatzen dute 2021-2027 aldirako urte anitzeko finantza-esparrua (UAFE), europar suspertze-tresna bat («Next Generation EU») martxan jartzea indartuz; tresna horren elementu nagusia Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan ezarritakoa.

Europako Suspertze Funtsaren finantza-baliabideak –Next Generation EU- Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren bidez garatuko dira; Ministro Kontseiluaren 2021eko apirilaren 27ko Erabakiaren bidez onartu zen, Kontseiluaren Betearazpen Erabakiak, 2021eko uztailaren 13koak, Espainiako Suspertze eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruz ezarritakoari jarraikiz (Council Implementing Decision- CID).

Espainiako gobernuak abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretua eman zuen, zeinaren bidez presako neurriak onartu baitziren Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko; bidenabar, HFP/1030/2021 Agindua ere eman zuen, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen zuena, eta HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko erakundeek informazioa emateko prozedura eta formatua ezartzen dituen, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren osagaietako neurrien mugarren eta helburuen betetze-mailaren eta neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenaren jarraipena egiteko.

BIGARRENA.-

Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren –SEEPean–, 14. Osagaiaren baitan, lehiakortasunaren arloko jarduketak berezien inbertsio-lerroa hartu da barne; zehazki, Helmugako Jasangarritasun Turistikorako Estrategiaren bidez egituratzen da.

Estrategia horrek ezarri egiten du turismo-administrazioek nola egituratzen, planifikatzen, garatzen eta ebaluatzen dituzten helmuga turistikoak jasangarritasunerantz eraldatzeko beharrezkoak diren jarduketak. Zehazki, 2021-2023 aldirako Helmugako Jasangarritasun Turistikorako Aparteko Programa hezuramaitzen da Estrategian, turismo-sektorearen lehiakortasun- eta modernizazio-planaren jardura nagusia.

Helmugako Jasangarritasun Turistikorako Planaren Aparteko Programaren zehaztapen operatiboa Helburuko Jasangarritasun Turistikoko Lurralde Planetan eta Helburuko Jasangarritasun Turistikoko Plan Nazional batean egingo da, urte bakoitzerako adosten den lehentasun turistiko nazionala lortzen lagunduko duena.

C14.I4 inbertsio-lerroari dagokionez, lortu nahi den helburua turismo-sektorearen lehiakortasuna bultzatzeko jarduketak ezartzea da, turismo-erabilerako ondare historikoa mantentzeko eta birgaitzeko inbertsioaren bidez (3. azpiproiektuan bilduta daude halako jarduketak, turismo-erabilerako ondare historikoa mantendu, kontserbatu eta birgaitzeko proiektu jasangarrien finantzaketaren barnean, hain zuzen).

HIRUGARRENA.-

Urtero, gutxienez lehentasun estrategiko bat ezarriko da turismo-politika nazionalaren arloan, funtsek turismo-eskaintzan eragin handiagoa izan dezaten, eta, halaber, programak berak ardatz nagusi bat eta koherentzia globala izan ditzan. 2021ean, eta ekitaldia salbuespenekoa izan zenez gero, Xacobeo 2021-2022 Turismo Plan Nazionala izan zen Helmugako Jasangarritasun Turistikorako Plan Nazionalaren lehentasunetako bat.

Turismo Sektoraren Modernizazio eta Lehiakortasunerako Planaren barruan dago Xacobeo 2021-2022 Turismo Plan Nazionala, zeina bost ardatzetan egituratuta baitago; ardatz horietako bat, hain zuzen, «Donejakue bideetako turismo-erabilerako ondare historikoa mantentzeko eta birgaitzeko proiektu jasangarriak» dira.

LAUGARRENA.-

Turismo-erabilerako ondare historiko eta kulturalaren garrantzia eta erakarpen-gaitasuna ikusita, ondare hori kontserbatzeko eta egokitzeko estrategia bat garatu nahi da, turismo-eskaintza, produktuaren kalitatea eta haren banaketa orekatua hobetze aldera. Alabaina, ondasun higiezin historiko-artistikoetan mantentze eta birgaitze egokiak gauzatzeko, helburu turistikoetarako erabil daitezten, inbertsioak egin behar dira baliabideetan.

Donejakue bidean kultura-intereseko ondasun ugari daude, eta mantendu eta birgaitu egin behar dira ondasun horiek, erabiltzaileek goza ditzaten, Bidearen produktu turistikoaren balio-katearen elementu gisa.

BOSGARRENA.-

Horren ondorioz, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak (MINCOTUR) abenduaren 7ko 1074/2021 Errege Dekretua –Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan turismo-erabilerako ondare historikoa mantendu eta birgaitzeko proiektu jasagarriak finantzatzeko dirulaguntzak zuzenean ematea arautzen duena– eman du 14. osagaiaren barruan (14. osagaiaren barruan dago hori, Turismo Sektorearen Modernizazio eta Lehiakortasunerako Planari buruzkoan, 4. inbertsioan, 3. azpiproiektuan [C14. I4.3]). Suspertze Planaren esparruan, jarduketa horiek lagungarriak izango dira CID Erabakiaren 228. Helburua betetzen.

4. inbertsio horretan (3. azpiproiektua) 2021erako sartutako laguntzen helburua zera da, turismo-erabilerako eta titulartasun publikoko kultura-intereseko ondasunen birgaikuntza finantzatzea, hiru ardatz finantzagarriren inguruan, garrantzi turistiko handia izaki; horietako bat Xacobeo 2021-2022 Turismo Plan Nazionala da.

Xacobeo 2021-2022 Turismo Plan Nazionalaren kontura titulartasun publikoko ondasunen gaineko jarduketak baino ezingo dira finantzatu, kontuan hartuta Donejakue bideek erabilera turistikoko kultura-intereseko ondasun ugari eta hainbat hartzen dituztela.

Ildo horretatik, abenduaren 7ko 1074/2021 Errege Dekretuak onuradun gisa ipintzen du Euskal Autonomia Erkidegoa Xacobeo 2021-2022 Turismo Plan Nazionalaren esparruan.

SEIGARRENA.-

Abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak, Euskal Autonomia Erkidegorako Autonomia Estatutua onartu zuenak, 10.36 artikuluan turismoaren gaineko eskumen eksklusiboa eman zion Euskal Autonomia Erkidegoari.

Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren sailak sortu, kendu eta aldatzeko prozedurak eta horien funtzioak eta jarduketa-eremuak zehaztekoak, 15. artikuluan ezartzen du Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari dagokiola, beste funtzio eta jarduketa-eremu batzuen artean, turismoarena.

Arauketa horretan, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 13/2021 Dekretuan esleitutako eskumenen esparruan jarduten du; dekretu horren 1. artikuluan

arabera, irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 15. artikulua hori garatze aldera, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio orokorrari dagozkion eskumenen barruan, Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak, beste gai batzuen artean, turismoari dagozkion funtzioak beteko ditu.

ZAZPIGARRENA.-

Euskadiko Donejakue bideak bi ibilbide ditu: bata, ekialdetik mendebaldera doa, Gipuzkoa eta Bizkaia zeharkatuz, eta, bestea, iparraldetik hegoaldera, Gipuzkoatik eta Arabatik igaroz. Ibilbideetan zehar, Donejakue Bidea lehen mailako ondare-multzoekin eta -elementuekin dago lotuta; horiek guztiak, hain zuzen, zeharkatzen dituen lekuen eta guneen adierazpen dira.

2/2012 Dekretuak –urtarrilaren 10ekoak– (aurrerantzean, urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretua) Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue bidearen zatia Monumentu Multzoa kategoriako Kultur Ondasun Sailkatutzat jotzen du.

Dekretu horren 21. artikulua ezartzen duenez, «*Donejakue bideari lotutako monumentu-multzoak eta higiezinak izango dira **babes-erregimen honen IV. eranskineko 4. zerrendan adierazten direnak***». IV. eranskinean Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue bidearen zatiari lotutako ondasun horien zerrenda jasotzen da.

ZORTZIGARRENA.-

Igartzako monumentu-multzoak Xacobeo 2021-2022 Turismo Plan Nazionalean ezarritako baldintzak betetzen ditu:

- Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue bidearen zatiari atxikitako kultura-intereseko ondasun bat da. (Urtarrilaren 10eko 2/2012 Dekretuaren IV. Eranskina)
- Beasainko Udalaren titulartasun publikoa.
- Erabilera turistikoa ahalbidetzen du.

BEDERATZIGARRENA.-

Abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuak zenbait baliabide juridiko aurreikusi zituen Europako funtsen kargura proiektuak garatzeko, tartean, lankidetzat-hitzarmenak. Gure kasuan, Beasainko Udalaren aldeko zuzeneko dirulaguntzaren kudeaketa bideratzeko baliabide gisa eratu das, horren bidez bete ahal izateko Kontseiluaren Betearazpen Erabakian, Espainiako Suspertze eta Erresilientzia Planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoan, bildutako mugarriak eta helburuak. Halaber, horietako bakoitzerako ezarritako finantzaketa bideratuko du.

Aipatutako abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuko 7.2 artikulua ezarri zuenez, «hitzarmenak Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean ezarritakoaren arabera arautuko dira».

3 DLOren 28. artikulua. Zuzeneko emakida. 1. Dirulaguntza horiek emateko ebazpenetan eta, hala badagokio, dirulaguntzak bideratzeko hitzarmenetan zehaztuko dira lege honetan ezarritakoaren arabera aplikatu daitezkeen baldintzak eta konpromisoak.

Bestalde, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48.7 artikuluan arabera, «hitzarmenak dirulaguntza bat bideratzen duenean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean eta, hala badagokio, aplikatzekoa den garapen-araudi autonomikoan aurreikusitakoa bete beharko du».

Horren ondorioz, hitzarmenaren araubide juridikoa hitzarmen administratiboaren figuraren bidez eratzen da, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2 a) artikuluan⁶ aurreikusitakoaren arabera; VI. kapituluaren bildutako aurreikuspenen mende dago, eta zuzeneko dirulaguntza baten kudeaketa bideratzen du Beasainko Udalaren alde, Euskal Autonomia Erkidegoko 2023. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 23ko 15/2022 Legearen 32.1 artikuluari jarraikiz. Hala, Eusko Jaurlaritzako Zerbitzu Juridiko Nagusiaren eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena eman da.

Bi alderdiek, jarduketaren helburuari erreparatuz, erabaki dute administrazio arteko hitzarmen hau sinatzea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47.2.a) artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Adierazitako guztiagatik, alderdiek hitzarmen hau sinatu dute, eta hitzarmena klausula hauen arabera arautuko da:

KLAUSULAK

1.- XEDEA

1.- Hitzarmen honen xedea alderdi sinatzaileen arteko lankidetzaren antolatzea da, Beasainko «Igartzako monumentu-multzoa» Mantentzeko eta Birgaitzeko Proiektu Jasangarria gauzatzeko lankidetzaren, hain zuzen. Proiektu hori Europar Batasunak finantzatzeko - Next Generation EU Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren barruan dago, eta honako ezaugarri hauek ditu:

- **Kategoria:** Monumentu-multzoa/Donejakue bidea
- **Titulartasuna:** udal-titulartasuna, Beasainko Udalarena.
- **Babes-maila:** Babes ertaineko gisa kalifikatua (2/2012 DEKRETUA, urtarilaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue bidearen zatia Monumentu Multzoa kategoriako Kultur Ondasun Sailkatua izendatzeko).

2.- Birgaitzearen xedea, hitzarmen honen hirugarren klausulan jasotako jarduketaren bat egitea da.

3.- Hitzarmenaren xedea Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 14. osagaiaren jasotako 3. azpiproiektuaren 4. inbertsioaren jasotako jarduketaren bati dagokio. Zehazki, hitzarmen honen xedea Kontseiluaren Betearazpen Erabakiaren 228. Helburuaren –ondare historikoa birgaitzeko jarduketei buruzkoaren– barruan sartzen da.

⁶ 2. Administrazio publikoek, haiei lotutako edo haien mendeko organismo publikoek eta zuzenbide publikoko erakundeek eta unibertsitate publikoek sinatzen dituzten hitzarmenak honako mota hauetarako batekoak izango dira: a) Administrazio publiko biren edo gehiagoren artean sinatutako administrazioarteko hitzarmenak, edo administrazio publiko desberdinetako erakunde publiko eta lotutako edo mendeko zuzenbide publikoko erakunde biren edo gehiagoren artean sinatutakoak; hitzarmen horien barnean bildu ahalko da beste administrazio publiko, erakunde publiko edo lotutako edo mendeko zuzenbide publikoko erakunde baten bitartekoak, eskumen propioak edo eskuordetzan emandakoak baliatzeko.

2.- IZAERA ETA ARAUBIDE JURIDIKO APLIKAGARRIA

1.- Hitzarmen hau administrazio-hitzarmena da, eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 47. artikulutik 53. artikulura bitartekoak izango ditu arau.

Dirulaguntza hitzarmen honen bitartez bideratuko da, eta, hitzarmen honetan ezarritakoaz gain, arau hauei jarraituko die:

- 1/1997 Legegintzako Dekretua, azaroaren 11koa, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura emandako dirulaguntzen bermeei eta dirulaguntza horiek itzultzeari buruzko araubide orokorra arautzen duena.
- Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, eta 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua onestekoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuari buruzkoa, zeinaren bitartez egiten baita 2014ko otsailaren 26ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23 (EB) eta 2014/24 (EB) Zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora, dirulaguntzak egikaritzean lege honen mende egon beharreko kontratuak eginez gero.
- 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena.
- Ebazpena, 2022ko urriaren 27koa, Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioarena, Euskal Autonomia Erkidegoari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, kultura-intereseko ondasunak exekutatzeko.
- Aplikagarriak diren gainerako arauak.

2.- Dirulaguntza hau hauen mende egongo da: Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezarri zuen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua; Espainian Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren kudeaketan, jarraipenean eta kontrolean aplikatu beharko den barne-araudia –irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua eta HFP/1031/2021 Agindua–, bereziki, Administrazio Publikoa modernizatzeko presako neurriak eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana egikaritzeko neurriak onartzeko abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretua, nahitaez aplikatu beharko baita; 15/2022 Legea, abenduaren 23koa, Euskal Autonomia Erkidegoko 2023ko ekitaldirako Aurrekontu Orokorra onartzekoa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako proiektuen eta jarduketan kontabilitate- eta aurrekontu-betearazpenari eta kudeaketari dagokionez; eta 1074/2021 Errege Dekretua, abenduaren 7koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan turismo-erabilerako ondare historikoa mantendu eta birgaitzeko proiektu jasagarriak finantzatzeko dirulaguntzak zuzenean ematea arautzen duena.

3.- Era berean, Gobernu Kontseiluaren 2022ko otsailaren 8ko Erabakian xedatutakoa aplikatuko da, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako jarduketak eta proiektuen aurrekontu- eta kontabilitate-gauzapean, kudeaketari eta jarraipenari dagokienez (erabaki hori 2022ko martxoaren 4ko EHAAren 46. zenbakian argitaratu zen, Jaurkitzearen Idazkaritzako eta Legebiltzarreko Harremanetarako zuzendariaren martxoaren 1eko 30/2022 Ebazpena betez).

3.- FINANTZATUKO DIREN JARDUKETAK ETA DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK

Finantzatuko diren jarduketak

1.- Igartzako monumentu-multzoa Kultura-intereseko ondasuna eta/edo haren ingurunea hobetzeko eta birgaitzeko jardura hauek finantzatu ahalko dira:

- a) Guneak turismo-erabilerarako birgaitzea.
- b) Energia-efizientzia hobetzea.
- c) Klima-alaketara egokitzeko jarduketak.
- d) Hondakinak kudeatzeko sistemak modernizatzea, hondakin-sorrera prebenitzeko eta murrizteko ekintzak barne hartuta, baita materialak bereizita biltzeko sistemen ezarpena ere, hondakinak berrerabilpen eta birziklapenerako prestatze aldera.
- e) Teknologia adimendunak dituzten guneak birgaitzea eta aprobetxatzea (banda zabalaren hobekuntza, *wifi* sareen instalazioa, *online*ko erreserbak, bisita birtualak edo antzekoak).
- f) Irisgarritasuna hobetzea.
- g) Argiztapen efizientea hobetzea.
- h) Energia eta ur kontsumoa murriztea.
- i) Kultura-intereseko ondasun deklaratuak eraikinak birgaitzea eta zaharberritzea, erabilera turistiko eta kulturalerako.
- j) Karbono-aztarna murriztea eta konpentsatzea, berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko jarduketak-planen bitartez.
- k) Energia-efizientzia hobetzea diesel- edo erregai-galdaren ordez gas naturaleko galdarak jarri.
- l) Ur grisak tratatzeko sistemetan hobekuntzak sartzea.

2.- Jarduketa horiek Europar Batasunaren Next Generation EU funtsekin finantzatu dira, Europar Batasunaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren bidez. Mekanismo hori Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan ezarrita dago.

Aurretik ezarritakoaren arabera sortutako kredituak Ekonomia eta Ogasun Sailak gaituko ditu «Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa» izeneko 1228. programan.

Diruz lagundu daitezkeen gastuak

1.- Zalantzarik gabe jarduketari lotutako gastu guztiak ulertuko dira finantzatu daitezkeen gastu modura, betiere 228. Helburua –ondare historikoa erabilera turistikorako birgaitzeari buruzkoa– lortzera bideratzen badira jarduerak eginez, eta behar-beharrezkoak badira, eta hitzarmen honetan ezarritako epe barruan egiten badira.

2.- Ez dira diruz lagunduko Europar Batasunak klimaren eta ingurumenaren arloan dituen arauak eta lehentasunak eta «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa erabat betetzen ez dituzten proiektuak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko ekainaren 18ko 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikulua ildotik. Finantzaketatik kanpo geratzen dira, baldin eta laguntza hauen xede den gastua egiten den kontzeptuei aplikagarri bazaizkie:

a) Erregai fosilekin lotutako inbertsioak (geroagoko erabilera barne).

b) Doako esleipenerako ezarritako erreferentzia-balioak baino nabarmen txikiagoak ez diren berotegi-efektuko gasen emisioak dituzten isurketa-eskubideen merkataritza-araubidearen esparruko jarduerak (ETS).

c) Sortutako hondakinak tratamendu mekaniko-biologikoaren (TMB), errausketaren edo isurketaren bidez tratatzea.

d) Hondakinak epe luzera ezabatzeak epe luzean ingurumen-kalteak eragiteko arriskua dakarten jarduerak (adibidez, hondakin nuklearrak sortzen dituztenak).

e) Hondakinen tratamenduarekin lotutako gastuak, baldin eta horiei ekoizlearen erantzukizun areagotua aplikatzen bazaie indarrean dagoen legeriaren arabera.

3.- Gastu hauek ez dira inola ere diruz lagunduko: zeharkako zergak, baldin eta errekuperatu edo konpentsatu badaitezke, eta errentaren gaineko zerga pertsonalak.

4.- Gastuak frogatuko dira faktura eta frogabaliokidea duten gainerako dokumentuen bitartez, baliozkoak direnean merkataritzako trafiko juridikoan, edo administrazio-eraginkortasuna dutenak.

5.- Diruz lagundu daitezkeen gastuen barruan daude, nolanahi ere, erakunde onuradunak 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera egindakoak, baldin eta beste finantzaketarik ez badago.

4.- EUSKO JAURLARITZAKO TURISMO, MERKATARITZA ETA KONTSUMO SAILAREN OBLIGAZIO EDO BETEBEHARRAK

1.- Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak, bere eskumenak baliatuta, eta abenduaren 7ko 1074/2021 Errege Dekretuari –Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan turismo-erabilerako ondare historikoa mantendu eta birgaitzeko proiektu jasangarriak finantzatzeko dirulaguntzak zuzenean ematea arautzen duenari– jarraikiz (zehazki, Turismo Sektorearen Modernizazio eta Lehiakortasunerako Planaren 14. osagaiari, 4. inbertsioari, 3. azpiproiektuari dagokionez [C14. I4.3]), eta Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioaren 2022ko abenduaren 2ko Ebazpenaren arabera, 700.000 euro emango dizkio toki-erakunde onuradunari, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa izeneko aurrekontu-

programaren (1228 programa, 12281 azpiprograma) eta 1001211000 1.12281.72100 2023/000934 aurrekontu-aplikazioaren kargura.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoak Turismoko Estatu Idazkaritzaren aurrean justifikatu beharko du transferentziaren helburua bete egin dela eta jasotako funtsak aplikatu egin direla. Horretarako, esleitutako proiektua eskatutako betekizunei jarraikiz garatzen dela zaindu beharko du.

Era berean, nahitaez bete beharko ditu Europako Suspertze Mekanismoa zein SEEPa egikaritzeko edo kudeatzeko onar daitekeen estatuko zein Europako edozein araudi aplikatuz Turismoko Estatu Idazkaritzak zein edozein organo edo agintaritza eskudunek eman ditzakeen jarraibideak.

3.- SEEParen proiektu edo ekimenei egotzitako gastuen kontabilitate-betearazpenaren jarraipena egiteko erantzukizuna bere gain hartuko du Euskal Autonomia Erkidegoak, abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 46. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Horrez gain, kasuan kasuko mugarrak eta helburuak lortzea erregistratu eta horren berri emateko betebeharrak ere hartzen ditu bere gain, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 3. artikuluan aurreikusitako inguruabarretan, baita irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduan ezarritako gainerako betebeharrak ere.

5.- TOKI-ERAKUNDE ONURADUNAREN BETEBEHARRAK

Azpiproiektua egikaritzeari dagokionez hartutako konpromisoak:

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko 2023. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 15/2022 Legearen V. Kapituluan, abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuaren 37.4 artikuluan eta abenduaren 7ko 1074/2021 Errege Dekretuaren 15. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan jasota egoteagatik finantzatuko diren proiektuak egikaritzeko EAEk jasotako diru-sarrerak legez lotuta geratuko dira proiektu horiek finantzatzera; hala, gastua egiten ez bada edo aurreikusitako helburuak erabat edo partzialki betetzen ez badira, diru-sarrerak erabat edo partzialki itzultzeko betebeharra ere egongo da.

2.- Azken onuradun gisa azpiproiektua gauzatzea dagokion erakundea denez, kudeaketa-txostena egin, sinatu eta izapidetzeko organo kudeatzailea izendatzea.

3.- Egin beharreko jarduketak hitzarmen honetako hirugarren klausulan jasotzen dira, eta jarduketa horiek behar bezala justifikatu behar dira Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren aurrean.

4.- Hitzarmen honen eraginpean egonik diruz lagundu daitezkeen jarduketak gauzatzeko epea 2025eko uztailaren 31ra artekoa izango da.

Halaber, erakunde onuradunari honako hauek ere badagozkio:

- a) Programako jarduketak egitea eta aurreko puntuan aurreikusitako funtsak hitzarmen honetan jasotako jarduketak egikaritu eta garatzeko aplikatzea.

- b) Zenbatekoa 5.3 klausulan aurreikusitako epean egikaritu beharreko inbertsioaren jarduketara zehaztetara bideratzea.
- c) Behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak bideratzea egikaritze-epeak betetzeko eta horrekin lortu nahi diren emaitzak maximizatzeko.
- d) Egin izana justifikatzea, hitzarmen honetan jasotako dokumentazioa (11. klausula) Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailera igorritz.
- e) Administrazioaren jardunean objektibotasun, publizitate eta gardentasunaren printzipioen bidez jokatzeko.
- f) Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 50.2 artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 14. artikuluan ezarritako betebeharrak betetzea, zehazkiago, honako hauek:

Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari dagokionez Europar Batasuneko xedapenen mende jartzeko betebeharra

1. Orokorrean, erakunde onuradunak betebeharrak izango ditu:

- a) Kontseiluaren Betearazpen Erabakiaren 228. Helburua –kultura-intereseko ondasun gisa kalifikatutako turismo-erabilerako eta titulartasun publikoko ondare historikoa hobetzeko eta birgaitzeko aurrekontua esleitzeari buruzkoa– betetzen laguntzea.
- b) Jasotako funtsak kasuan kasuko helburu zehatzera bideratzea eta proiektuaosatzen duten jarduketak egitea, hitzarmen honetan ezarritako forma, baldintza eta epeetan, eta Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren aurrean justifikatzea helburua bete dela eta izan duen kostu erreala.
- c) Iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak prebenitzea, detektatzea, jakinaraztea, zuzentzea eta horien arriskuaren ebaluazioa egitea eta Interes-gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) betetzea eta interes-gatazka horiei heltzeko prozedura bat eskura izatea, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren esparruan, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduko betebeharren arabera betiere. Administrazio onuradunak SEEParen araberrako arautegia kontuan hartuta eratutako iruzurraren aurkako bere plana aplikatu beharko du edota, hitzarmen hau sinatuz, dena delako administrazioak bat egingo du Eusko Jaurlaritzaren «Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzeko eskatzen diren iruzurraren aurkako borrokari, interes-gatazkei, finantzaketa bikoitzari eta estatu-laguntzei buruzko betekizunak eta ingurumenari kalte nabarmenik ez egitekoak betetzeko neurrien plana», zeinaren 2.2 apartatuan honakoa zehazten da «Plan hau Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko osoari aplikatuko zaio, bai eta Eusko Jaurlaritzaren bidez Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzaketa-funtsak jasotzen dituzten foru- eta toki-sektore publikoko administrazio eta erakundeei ere, salbu eta iruzurraren aurkako plan bat badute onartuta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana arautzen duen araudiaren arabera. Era berean, plana zuzenean edo egokituta aplikatu ahal izango zaio bere borondatez hala erabakitzen duen edozein erakunde betearazle edo kudeatzailerari»

Plan horri esker berma eta adieraz daiteke, kasuan kasuko jarduketa-eremuan, funtsak arau aplikagarri jarraikiz erabili direla kasuan-kasuan, bereziki iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak saihestu, antzeman eta zuzentzeko.

Erakunde onuradunak honako hauek bermatuko ditu bereziki:

Enpresa kontratistek, azpikontratistek edo hitzarmen honen ondoriozko laguntzen onuradunak hautatzeko prozesuan edo hitzarmenaren baldintzak betetzen direla egiaztatzeko prozesuetan parte hartzen dutenek deklaratu beharko dute «Iruzuraren aurkako neurrien plana»-ren baldintzak osorik eta zabal-zabal ezagutzen eta onartzen dituztela.

Xede horietarako, pertsona horien artean honako hauek egongo dira: kontratua adjudikatzeko edo dirulaguntza emateko eskumena duen organoko arduraduna, dirulaguntzaren oinarriak eta/edo deialdia idazten duten langileak, eta eskaintzak edo eskabideak ebaluatzen dituzten adituak eta batzorde-kideak, bai eta lan horietan Administrazioari laguntzen eta aholkatzen dioten erakunde pribatuetako pertsona fisiko guztiak ere.

Bereziki, interes-gatazkarik ez dagoela ziurtatzeko neurriak hartuko dituzte, izapidetzen diren espedienteetan beharrezko txosten edo erantzukizunpeko adierazpenak barne, dagokionaren arabera, eta interes-gatazkak erregulatzen dituen araudia aplikatuko dute, antzeman bezala.

Prozeduraren batean interes-gatazka eragin dezakeen kausaren batean dauden agintariak eta langileak ez dute esku hartuko dena delako prozedura horretan. Nor edo nork uste badu balitekeela interes-gatazkarik egotea, hierarkian gorago dagoenari jakinaraziko dio, idatziz; zerbitzu juridikoek txostena egingo dute, eta hartu beharreko erabakia hartuko da. Nolanahi, HFP/55/2023 Aginduan ezarritako kasu zehatzetarako ezartzen den prozedura berezia errespetatu beharko da.

Kontu-hartzaileak berariazko auditoretzak egin ahal dituela interes-gatazkak prebenitzeko, detektatzeko eta zuzentzeko neurri egokiak dauden egiaztatzeko, eta horien emaitzen berri eman beharko dio berariaz Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari, Eusko Jaurlaritzak berak edo hark izendatutako erakundeak egiten dituen berariazko ikuskapenak alde batera utzi gabe.

Interes-gatazka antzeman ondoren, neurri egokiak berehala hartuko direla, kasuan aplikatu beharreko lege- eta erregelamendu-arauen arabera.

Halaber, erakunde onuradunak arriskuen matrizea bete beharko du, I. eranskina izenekoa, SNCAk eginga:

<https://www.igae.pap.hacienda.gob.es/sitios/igae/esES/snca/Paginas/NormativaDocumentacion.aspx>

Urtarrilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan adierazitako ondorioetarako, bertan ezarritako prozedurak aplikatuko dira.

Gainera, agindu hori betetzeko, agindu horretan arautzen den interes espezifikoko gatazkarik ez dagoela adierazteko adierazpena sinatu beharko dute dirulaguntzak emateko organoetako

kideek, dagokion eranskinean jasota datorren agiriaren bidez. Zehazki, honako hauek dira adierazpena sinatu behar dutenak: dirulaguntzetan, dirulaguntzak emateko organo eskudunak eta eskaerak baloratzeko kide anitzeko organoetako kideek; eskaerak baloratzeko eta emakida ebazteko fasean, kontratuetan kide bakarreko kontratazio-organok eta kide anitzeko kontratazio-organoko kideek, eta eskaintzak baloratzeko eta kontratua esleitzeko eta esleitzeko faseetan, kontratazio-organolari laguntzeko kide anitzeko organoko kideek. Gainera, eragiketaren arduradunak balizko interes-gatazka egiaztatze prozesua egin beharko du, HFP/55/2023 Aginduaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera. Prozesu horretatik ondorioztatzen bada bandera beltz bat edo batzuk detektatu direla, HFP/55/2023 Aginduaren 7. artikuluan xedatutako prozedurari jarraitu beharko diote.

Horretarako, benetako titulartasunari buruzko informazioa aurkezteko galdegin beharko diete eskatzaileei, 5 egun balioduneko epean. Informazio hori aurkitu ezean ezarritako epean aurkeztu, prozeduratik kanpo geratuko dira.

Aurreko paragrafoan aipatzen diren langileek elektronikoki sinatu beharko dituzte Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpenak (HEZD), kontratazio-prozeduretan edo dirulaguntzak emateko prozeduretan parte hartzen dutenei dagokienez, parte-hartzaile horien berri izan ondoren.

d) Proiektura bideratutako funtsen aplikazioa kontrolatzeko eta jarraipena egiteko jarduketan mende jartzea, dokumentuak egiaztatuz, eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren etengabeko eta amaierako ebaluazioaren mende jartzea, baita kontrol finantzarioaren mende ere, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren eta Kontuen Auzitegiaren eta Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoko funtsak kontrolatu eta horren jarraipena egiteko agindu zaien estatu-mailako zein Europako organoen kontrol finantzarioaren mende, bereziki Europako Batzordea, Europako Kontuen Auzitegia, Iruzuraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoa (OLAF) eta Europako Fiskaltza, zeinek egindako jarduketan informazio xehera sarbidea izan ahalko baitute.

e) Hitzarmen honen esparruan egingo diren jarduketa guztien kudeaketa, egikaritze eta kontrolari buruz behar den informazio oro Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailera helaraztea.

f) Toki-erakunde onuradunak, erakunde jardulea den aldetik, HFP/1030/2021 Aginduko 8. artikuluan adierazitakoa egingo du, funtsen azken hartzailea, laguntzen erakunde onuradunak, kontratistak eta azpikontratistak identifikatzeari eta informazio hori emateari dagokionez.

Zehazki, aurreikusi beharko da funtsen azken hartzaileek onartu egingo dutela inplikaturako administrazio publikoen artean datuak lagatzea, Europako araudi aplikagarrian aurreikusitakoa betetzeko, Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Legeari jarraikiz, eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren IV.B eranskinean ezarritako ereduaren arabera.

Horretarako, toki-erakunde onuradun jarduleak dagozkion betebeharrak jasoko ditu lizitazio-prozeduretan, kontratistak eta azpikontratistak identifikatzeari dagokionez, hitzarmen honen bederatzigarren klausulan ezarritakoaren arabera.

g) Hitzarmen honen esparruan garatutako jarduketan auditoria-bide egokia mantentzea, eta oinarri-dokumentazioa gordetzeko betebeharra. Informazioa Ogasun eta Funtzio Publikoko Ministerioaren irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduak eta HFP/1030/2021 Aginduak ezarritako inguruabarretan emango da.

h) Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten jatorrizko agiriak zaintzea eta gordetzea, egiaztatuak eta ikuskatuak izan daitezkeen bitartean, behintzat.

i) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, EURATOM) Erregelamenduaren 132. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, justifikazio-dokumentuak, datu estatistikoak eta finantzaketari buruzko gainerako dokumentuak gorde beharko dituzte, bai eta erregistroak eta dokumentuak ere, formatu elektronikoan, saldoa ordaintzen denetik edo, ordainketa hori egin ezean, eragiketa egiten denetik bost urteko epean. Aldi hori hiru urtekoa izango da finantzaketa 60.000 eurokoa edo txikiagoa bada.

Auditoretzei, errekurtsoei, auziei, konpromiso juridikoei buruzko erreklamazioen izapidetzeari edo lruzurraren aurka Borrokatzeko Europako Bulegoaren (OLAF) ikerketei buruzko erregistroak eta dokumentuak gorde egingo dira harik eta auditoretza, errekurtsu, auzi, erreklamazioen izapidetze edo ikerketa horiek amaitu arte. OLAFen ikerketei buruzko erregistro eta dokumentuen kasuan, ikerketa horiek jasotzaileari jakinarazi ondoren aplikatuko da erregistroak eta dokumentuak gordetzeko betebeharra.

Erregistroak eta dokumentuak jatorrizkoak edo jatorrizkoen kopia konpultsatuak izango dira, edo oro har onartutako datu-euskarrietan gordetzen direnak; besteak beste, jatorrizko dokumentuen bertsio elektronikoak edo bertsio elektronikoan bakarrik dauden dokumentuak. Bertsio elektronikoak daudenean, ez da jatorrizko dokumenturik beharko, baldin eta dokumentu horiek aplikagarri diren lege-baldintzak betetzen badituzte, jatorrizko dokumentuen baliokidetzat eta auditoretzaren ondorioetarako fidagarritzat jo ahal izateko.

j) Toki-erakunde onuradunak jarduera egiteko behar den enplegu guztia Espainian sortzeko betebeharra izango du; langileak kontratatuz eta Gizarte Segurantzara afiliatuz egin beharko da. Eskakizun hori betetzea agiri bidez justifikatu beharko da.

k) Toki-erakunde onuradunak bete egin beharko du estatuko dirulaguntzen araubidearekin bateragarri izateari buruzko estatuko eta Europako araudia, eta finantzaketa bikoitza saihesteari buruzkoa, bat etorritik irailaren 29ko HFP 1030/2021 Aginduko 7. artikuluan aurreikusitakoarekin, hitzarmen honen 15. apartatuan aurreikusitakoaren arabera.

l) Jarduera edo jarduerak egiteko hitzarmen honetan aurreikusitako epe eta baldintzetan erabili ez diren aurrerakinak Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailari itzultzea, 13. klausulan ezarritako prozedurari jarraikiz.

m) Publizitate, ezagutarazpen eta komunikazioko betebeharrak betetzea, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 9. artikuluari eta hitzarmen honen 12. klausulari jarraikiz.

n) Erakunde onuradunak konpromisoa hartzen du SEMeko funtsekin finantzatutako jarduketan datuak eta informazioa jasotzeko kasuan kasuko epeetan eta administrazio eskudunak horretarako ezarriko duen aplikazioan.

o) Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legearen 32.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, bisita publikoa baimendu beharko dute.

2. «Kalte adierazgarriak ez egiteko» printzipioa aplikatuz («*do no significant harm-DNSH*»), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduak eta Suspertze Planak aurreikusitakoaren arabera, ingurumen-legedi aplikagarria errespetatuko da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020ko ekainaren 18ko 2020/852 (EB) Erregelamendua barne (inbertsio jasangarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzkoa eta 2019/2088 (EB) Erregelamendua aldatzekoa), baita Europako Batzordearen Gida Teknikoa (2021/C 58/01) ere, «kalte adierazgarriak ez egiteko» printzipioa aplikatzeari buruzkoa. Ingurumen-ebaluazioko prozedurak errespetatu egingo dira, aplikagarriak direnean, indarrean dagoen legediarekin bat etorriz, baita ingurumen-legedia dela bide aplikagarriak izan daitezkeen bestelako ondorioen beste ebaluazio batzuk ere.

DNSH printzipioaren betetzearen justifikazioa aurkeztu beharko da, DNSH printzipiora egokitzearen aldeko ebaluazio baten bidez, edo, hala badagokio, erantzukizunpeko adierazpen baten edo printzipio hori betetzen dela egiaztatzeko autoebaluazio baten bidez. Nolanahi ere, erakunde onuradunek «kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa betetzen dela egiaztatzeko mekanismoak eta hura ezartzen dela ziurtatzeko neurri zuzentzaileak aurreikusiko dituzte, eta hori jasota utziko dute.

Nolanahi ere, Kontseiluaren Betearazpen Erabakian ezarritakoa betez, neurriak DNSH printzipioa aplikatzeko gida teknikora egokitzen direla bermatze aldera (DO C 58 de 18.2.2021,

p. 1), proiektuen hurrengo deialdietako dirulaguntzen baldintza-agirietan ezarritako irizpideek jarduera hauek kanpo utziko dituzte: i) erregai fosilekin lotutako jarduerak, gerorako erabilera barne; ii) EBko emisio-eskubideen merkataritza-araubidearen esparruko jarduerak, sortuko dituzten berotegi-efektuko gasen emisioak ez badira kasuan kasuko erreferentziako parametroetatik beherakoak; iii) hondakinen zabortegekin, erraustegiekin eta tratamendu mekaniko-biologikoko instalazioekin lotutako jarduerak; eta iv) hondakinak epe luzera suntsitzeko jarduerak, ingurumenari kalte egin ahal diotenean. Baldintza-agiriak, gainera, eskatuko du estatuko eta EBko ingurumen-legedia betetzen dituzten jarduerak soilik aukeratu ahal izango direla.

3. Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa arautzen duen gainerako araudia eta, bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoak eta Espainiako gobernuak horren inguruan onar ditzaketen araudietan ezarritakoa, baita Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren inguruan Batasunak emango dituen xedapenak ere.

6.- LAGUNTZAREN ZENBATEKOA ETA ORDAINKETA

1.- Ordainketa aldeztu aurretik egingo da, eta aldi bakarrean; hitzarmen hau sinatu ondoren ordainduko da, eta zerga-betebeharrak eta Gizarte-Segurantzarekiko betebeharrak betetzen direla egiaztatuta eta gero.

2.- Toki-erakundeari 700.000 euro ordainduko zaizkio, Xacobeo 2021-2022 Turismo Plan Nazionalen Igartzako monumentu-multzoa Mantentzeko eta Birgaitzeko Proiektu Jasangarrira bideratutako zenbatekoa kontuan hartuta.

Ez dagokio bermerik eratzea, abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan –Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura emandako dirulaguntzen bermeei eta dirulaguntza horiek itzultzeari buruzko araubide orokorra arautzen duenean– eta Euskal Autonomia Erkidegoko 2023. urteko Aurrekontu Orokorra onartzen dituen abenduaren 23ko 15/2022 Legearen 32.3 artikuluan ezarritakoari jarraikiz⁷.

7.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOTIK PASATZEN DEN DONEJAKUE BIDEAREN ZATIARI ATXIKITAKO KULTURA-INTERESEKO ONDASUNA MANTENTZEAREN ETA BIRGAITZEAREN ALORREKO BERARIAZKO NEURRIAK

1.- Eraikinak birgaitzean, kontuan hartu beharko dira eraikinen energia-efizientziari buruzko 2018/844 (EB) Zuzentarauan jasotako jarraibideak, ia energia-kontsumorik gabeko eraikinak izate aldera, eta energia primario berriztaezinen kontsumoa nabarmen murrizteko.

2.- Birgaitze-neurriek eraikinak klima-aldaketara egokitzea ahalbidetuko dute, eraikinaren arabera hartu daitezkeen konponbideak ezarri, eta eraikin babestuetan, babes-mailaren arabera hartu daitezkeenak, hala nola landare-estalkiak, olanak, itzalguneak eta abar.

3.- Ez da aurreikusten neurria kaltegarria izango denik ur-baliabideen eta itsas baliabideen erabilera jasangarrirako eta babeserako. Ur-aparatuak instalatzen direnean, Europar Batasunean existitzen den produktuaren etiketa izango dute. Obrak ez dezan inpakturik izan, uraren kalitatea babestearekin eta estres hidrikoa prebenitzearekin lotutako ingurumen-degradazioko arriskuak identifikatu eta jorratuko dira, uraren erabilera eta babes kudeatzeko plan baten arabera.

4. Sortutako eraikuntza- eta eraispén-hondakin ez-arriskutsuen % 70 (pisuan) gutxienez (2000/532/EE Erabakiak finkatutako Europako Hondakinen Zerrendan 17 05 04 kategorian aipatutako material naturala izan ezik), berrerabiltzeko, birziklatzeko eta beste material batzuk berreskuratzeke prestatuko da, bestelako material batzuk ordezkatzeko hondakinak erabiliz egindako betelanak barne, hondakinen hierarkiaren eta EBren eraikuntza- eta eraispén-hondakinak kudeatzeko protokoloaren arabera.

5.- Hondakinen sorkuntza mugatu egin beharko da eraikuntzarekin eta eraispénarekin zerikusia duten prozesuetan, EBren eraikuntza- eta eraispén-hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorriz, eskuragarri dauden teknikarik onenak kontuan hartuta eta eraispén selektiboa erabiliz, substantzia arriskutsuak modu seguruan ezabatu eta manipulatu ahal izateko eta kalitate

⁷ Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planari lotutako proiektuen eta jarduketaren esparruan emandako laguntza eta dirulaguntza publikoen kasuan, dirulaguntza aurretiaz ordaindu ahaliko da justifikazioa eman aurretik, beharrezkoa bada laguntzaren edo dirulaguntzaren berezko jarduketak egiteko;

ez da izango beharrezkoa bermea eratzea.

handiko berrerabilpena eta birziklapena errazteko, materialak gaika ezabatuz, eraikuntza- eta eraipen-hondakinetarako eskura dauden sailkapen-sistemak erabiliz.

6.- Eraikuntza-teknikek zirkulartasuna bultzatuko dute, bereziki eraikinak desmuntatzeko edo egokitzeko gaitasuna ebaluatzen ISO 20887 arauari jarraikiz; zer-nola dauden diseinatura baliabideen erabilera efizienteagoak, moldagarriak, malguak eta desmuntagarriak izateko, berrerabiltzea eta birziklatzea ahalbidetzeko.

7.- Energia fosiletan oinarritutako berokuntza- eta hozte-sistemak ezer ere kutsatzen ez duten teknologiekin ordezkatzera bideratutako jardueren izaera orokorrak aukera eman behar du airerako isurketak nabarmen murrizteko.

8.- Eraikinen birgaitzea (energia-eraginkortasunaren kontzeptua barne) sustatzeari dagokionez aurreikusitako jarduketaren izaera orokorrak argi eta garbi aurreikusten du kutsatzaile atmosferikoen emisioak murriztuko direla, batez ere energia-konsumoa murrizteari lotuta.

9.- Eraikuntzan erabilitako eraikuntzako materialek eta osagaiak ez dute amiantorik edukiko, ezta oso substantzia kezagarriak ere; alegia, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1907/2006 (EE) Erregelamenduaren XIV. eranskinean jasotako baimenari lotutako substantzian zerrendaren arabera identifikatutakoak. Eraikuntzan erabilitako eraikuntzako materialek eta osagaiak, erabiltzaileekin kontaktua izan badezakete, material edo osagaiaren m³ bakoitzeko 0,06 mg formaldehido baino gutxiago aireratuko dute, eta material edo osagaiaren m³ bakoitzeko 1A eta 1B kategorietako konposatu organiko lurrunak kantzerigenoen 0,001 mg baino gutxiago. Horiek neurtzeko, proba bat egingo da CEN / TS 16516 eta ISO 16000-3 arauari jarraikiz, edo bestelako proba-baldintza estandarizatuak eta zehazte-metodo konparagarriak jarraikiz.

10.- Eraikin berria kutsatuta egon daitekeen leku batean dagoenean (brownfield), leku horri kutsagarri potentzialen ikerketa egingo zaio, ISO 18400 araua erabiliz. Gainera, obra-fasean zarata, hautsa eta emisio kutsatzaileak murrizteko neurriak hartuko dira, eta neurri hori lotutako jarduketak gauzatuko dira, betiere indarrean dagoen araudi aplikagarria betez, lurzorua eta ura kutsatu ahal izateari dagokionez.

11.- Neurriak ez du ondorio kaltegarri izango biodibertsitatean eta ekosistemetan, natura-, itsaso- eta lur-inguruneak babestu nahi baititu.

12.- Birgaitze-jarduerak biodibertsitatearekiko sentikorrak diren eremuetan (babestutako eremuen Natura 2000 sarea, UNESCOren Munduko Ondareko guneak eta biodibertsitatearako funtsezkoak diren eremuak barne, baita beste eremu babestu batzuk ere) edo hurbileko eremuetan egiten direnean, Habitategi buruzko Zuzendarauaren 6 (3) eta 12. artikulua eta Hegazti buruzko Zuzendarauaren 5. artikulua bete beharko dira. Gainera, nahitaezkoa denean, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioa (IIE) egingo da, IIE Zuzendarauaren arabera.

8.- NEURRI ESPEZIFIKO, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOTIK IGAROTZEN DEN DONE JAKUE BIDEARI ATXIKITAKO KULTURA INTERESEKO ONDASUNEAN IT EKIPOAK EROSTEARI BURUZKOAK

1.- IT ekipoek 2009/125/EE Zuzentarauaren arabera energiarekin lotuta ezarritako baldintzak beteko dituzte, hain zuzen ere, datuak biltegitratzeko eta zerbitzarietarako edo konputagailu eta zerbitzarietarako edo pantaila elektronikoetarako ezarritakoak.

2.- Erosketa horietan, energetikoki eraginkorrek diren eta Europako Batzordearen Code of Conduct for ICT erabat errespetatzen duten ekipamenduen erosketa ziurtatzeko neurriak aktibatuko dira, eta ezarritako produktuen, tresna elektrikoek eta elektronikoen iraunkortasuna eta konpontzeko, eguneratzeko eta berrerabiltzeko aukera areagotzeko neurriak hartuko dira.

3.- IT ekipoek 2009/125/EE Zuzentarauaren arabera materialen efizientzia-baldintzak beteko dituzte, hain zuzen ere, zerbitzarietarako eta datuen biltegitratzerako, edo konputagailuetarako eta konputagailuen zerbitzarietarako edo pantaila elektronikoetarako ezarritakoak.

4.- Erabiltzeko ekipoek ez dute izango 2011/65/EB Zuzentarauaren II. eranskinean zerrendatutako substantzia mugatuak, salbu eta material homogeneoen pisuko kontzentrazio-balioek ez badituzte gainditzen eranskin horretan zerrendatutakoak.

5.- Bizitza erabilgarriaren amaieran, IT ekipoak berrerabiltzeko, berreskuratzeko edo birziklatzeko prestatuko dira, edo tratamendu egokia emango zaie, fluido guztiak ezabatzea eta tratamendu selektiboa egitea barne hartuta, 2012/19/EB Zuzentarauaren VII. eranskinaren arabera.

9.- AZPIKONTRATAZIOA

1. Erakunde onuradunek hirugarrenekin itundu ahalko dute proiektuak osorik edo partzialki gauzatzeko ataza, kasuan kasuko lizitazio-prozeduren bidez betiere; aukera izango dute, halaber, berezko baliabideei enkarguak eginez osorik edo partzialki gauzatzeko proiektu horiek, baldin eta Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legean aurreikusitako mugak betetzen badituzte. Azpikontratazioaren kasuan, erakunde onuradunek jarduera azpikontratatu ahalko dute, osorik edo partzialki, diruz lagundutako jardueraren zenbatekoaren ehuneko 50ean gehienez ere, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 29. artikuluan eta lege horren Erregelamenduaren 68. artikuluan xedatutakoari egokituta, betiere baimena tartean dela. Baimen hori gehienez ere hiru hilabeteko epean izapidetu beharko dela kontuan izanik. Edonola ere, hirugarrenek Europako eta nazioko araudiaren edukia errespetatu beharko dute, eta bereziki:

a) Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13.2 artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte, Estatuko Aurrekontu Orokorren kontura aurretik emandako beste edozein mailegu edo aurrerakin itzultzeko ordainketa-betebeharrak egunean izateaz gainera.

b) Irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 8. artikuluan xedatutakoa bete beharko dute, funtsen azken jasotzaileen identifikazioari dagokionez.

2. Jarduera erabat edo partzialki azpikontratatzuz gero, azpikontrastek «ingurumenari kalte adierazgarririk ez egiteko» printzipioa betetzen dutela ziurtatzeko mekanismoak aurreikusi beharko dira.

3. Azpikontratutako erakundeek arau juridiko, etiko eta moraletako estandarrik zorrotzenak betetzeko konpromisoa hartu beharko dute; iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak saihestu eta antzemateko behar diren neurriak hartu beharko dituzte, Interes-gatazkarik Ezaren Adierazpena (IGEA) bete beharko dute, ekonomia zirkularraren printzipioak errespetatu beharko dituzte eta ingurumenean inpaktu negatibo nabarmenak ekidin beharko dituzte («DNSH», ingeleseko siglak, «*do no significant harm*») plan horren esparruan egingo diren jarduketak egitean; orobat, ezingo dute finantzaketa bikoitzik eduki eta, hala badagokie, ezingo dute estatu-laguntzen araubidearekiko bateraezintasun-arriskurik izan. Horretarako, aipatutakoa inguruabar horietan betetzen dela kasuan kasuko azpikontrataren aitorpenaren bidez egiaztatuko da.

4. Toki-erakunde onuradunak kontratistak eta azpikontratistak identifikatu beharko ditu; hala, lizitazio-prozeduretan honako datu hauek jaso beharko dituzte:

a) Kontratistaren edo azpikontratisten IFZa.

b) Izena edo izen soziala.

c) Kontratistaren eta, hala badagokio, azpikontratisten egoitza fiskala.

d) Nola onuradunaren hala kontratisten eta azpikontratisten benetako titulartasunaren identifikazioa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015eko maiatzaren 20ko 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluan 6. puntuan horri ematen zaion definizioaren arabera, irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 10. artikuluan ezartzen denari jarraikiz betiere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 22. artikuluari dagokionez.

e) Inplikaturako administrazio publikoen artean datuak lagatzea onartzen delako adierazpena, Europa mailako araudi aplikagarrian aurreikusitakoa betetzeko eta bat etorritzat Datu pertsonalak babesteko eta eskubide digitalak bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoarekin.

f) SEEPen ezarritako zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoari buruzko erantzukizunpeko adierazpena, kudeatu beharreko esparruari eragiten badiote.

g) Kontratistek egiaztatu egingo dute izena eman dutela Zerga Administrazioko Estatu Agentziaren enpresaburu, profesional eta atxikitzaileen erroldan, edo Zergen Foru Administrazioko errolda baliokidean; lizitazio-prozeduran parte hartu den unean benetan garatutako jarduera islatu behar da.

10.- JARRAIPEN-BATZORDEA

1. Hitzarmen hau bete, aplikatu eta interpretatzeari buruz sortutako auziak ebazteko eta kontrolatzeko, hitzarmen hau sinatzen denetik aurrera eratuko da eratuta jarraipen-batzordea, eta batzordearen funtzionamendurako barne-arauak emango ditu; alderdietako batek eskatzen duen aldiro batu beharko da batzordea, eta, gutxienez, urtean hiru aldiz.

2. Hitzarmen honetan aurreikusten denaren arabera jardungo du batzordeak, eta, modu osagarrian, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen lehenengo titulua II. kapituluaren hirugarren atalean xedatzen denaren arabera.

3. Batzordea paritariora izango eta batzordekide hauez osatuta egongo da:

- Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren aldetik: Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailburuak izendatutako bi ordezkari:
 - Turismo eta Merkataritzako sailburuordea.
 - Proiektua gauzatzen dela kontrolatzeko eta gauzatze hori ebaluatzeko ardura duen teknikari bat.
- Toki-erakundearen aldetik: Beasainko Alkate-Udalburuak izendatutako bi ordezkari:
 - Alkatea-Udalburua edo hark eskuordetzen duen zinegotzia.
 - Obretako ingeniari teknikoa edo bestelako teknikari bat.

Batzordeko lehendakaria Turismo eta Merkataritzako sailburuordea izango da, eta hark berariaz izendatutako pertsona batek ordezkatu ahalko du.

Bilerak bitarteko elektronikoen bidez egin ahalko dira.

4. Hitzarmen hau egikaritzean, interpretazioan eta aplikazioan sor litezkeen auzi guztiak zaindu, kontrolatu, ebatzi eta jarraipena egitea izango dira Jarraipen Batzordeari emandako eginkizunak.

11.- JUSTIFIKATZEKO EPEA ETA MODUA

1. Proiektua gauzatu ondoren (eta nolanahi ere, 2025eko uztailaren 31 baino lehen), Beasaingo Udalak Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren aurrean justifikatu beharko du hori, gehienez ere 3 hilabeteko epean. Horretarako, ezarritako kondizio edo baldintzak bete dituela justifikatzeko jarduketaren memoria bat eta memoria ekonomiko bat aurkeztuko ditu, aintzat hartuz abenduaren 30eko 36/2020 Errege Lege Dekretuko 63. artikuluan eta abenduaren 7ko 1074/2021 Errege Dekretuko 11. artikuluan ezarritako berezitasunak; honako dokumentazio hau jaso beharko du aipatutako memoriak:

a) Kondizioak betetzen direla justifikatzeko jarduketa-memoria bat, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita. Gainera, justifikazioan erantzukizunpeko adierazpen bat ere barne hartu beharko du jarduketa-memoria horrek, «Ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko» («do not significant harm» edo DNSH) irizpidea betetzeari buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan ezarritakoari jarraikiz.

b) Egindako jarduketaren kostua justifikatzeko memoria ekonomiko bat. Honako hauek jasoko ditu memoria ekonomiko horrek:

- Jarduketaren kostuen zerrenda sailkatua, alderdi hauek zehaztuta: hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioa, zenbatekoa, zer datatan eman den, eta, hala badagokio, noiz ordaindu zen.

- Aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan jasotako fakturen edo merkataritzako trafiko juridikoan antzeko froga-balioa duten dokumentuen edo administrazio-efikazia dutenen kopiak, eta ordainketaren egiaztagiria.

c) Jarduera funts propioek edo beste dirulaguntza edo baliabide batzuek ere finantzatu baditu – dirulaguntza honetaz gain–, dirulaguntza jaso duten jarduera horietarako erabilitako zenbatekoa, jatorria eta aplikazioa egiaztatuko dira justifikazioan, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 30.4 artikuluari jarraikiz.

d) Onuradunak eskatu behar izan dituen hiru aurrekontuak, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 31.3 artikulua aplikatuz.

e) Idazkariak/kontu-hartzaileak emandako ziurtagiria, hauek justifikatzeko: jarduera egin dela, jasotako funtsak dagokien helburuan aplikatu direla, diruz lagundutako jarduketei lotuta egindako ordainketen xehetasunak eta dirulaguntzaren justifikazio-agirien egiazkotasuna eta arauzkotasuna.

f) Hartutako hedapen-neurriei buruzko ziurtagiria, oro har jakitera emateko diruz lagundutako jarduketak estatuak finantzatu dituela, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan.

g) Erantzukizunpeko adierazpenak, irailaren 29ko HFP/1030/2021 eta HFP/1031/2021 aginduetan ezarritako kudeaketa- eta informazio-sistemei buruzko arau-xedapenei jarraikiz.

2. Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten jatorrizko agiri guztiak gorde beharko dira, egiaztatuak eta ikuskatuak izan daitezkeen bitartean, behintzat.

3. Halaber, toki-erakundeak beste edozein txosten edo ziurtagiri aurkeztu beharko du, estatu-mailako edo Europako araudiak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan halakorik eskatuz gero.

4. Aurkeztutako dokumentazioa Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak aztertuko du, eta beharrezkotzat jotzen duen beste dokumentu edo datu argigarri batzuk aurkezteko eskatu ahalko du, modu gehigarrian, edo, hala badagokio, erabili ez diren zenbatekoak itzultzeko kasuan kasuko prozeduraren bidez.

12.- KOMUNIKAZIOA, PUBLIZITATEA ETA HEDAPENA

1. Laguntzaren onuradun den toki-erakundeak komunikazio, publizitate eta hedapenaren alorreko betebeharrak hauek bete beharko ditu:

a) Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren finantzaketari dagozkionak, Europako eta estatu-mailako araudi aplikagarriari jarraikiz eta, zehatz-mehatz, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduko 9. artikulua arabera.

Inbertsioek garatutako jarduketan informazio- eta komunikazio-neurrietan (informazio-kartelak, plakak, argitalpen inprimatuak eta elektronikoak, ikus-entzunezko materialak, webguneak, prentsan txertatutako argitalpenak eta iragarkiak, ziurtagiriak eta abar) logotipo hauek sartu beharko dira:

1. Europar Batasunaren enblema.

2. Batasunaren enblema alboan «Europar Batasuneko Next Generation EUk finantzatua» testua sartuko da.

3. Kontuan hartu beharko dira 821/2014 Exekuzio Erregelamenduko II. eranskinean ezarritako arau grafiko eta kolore normalizatuak. Erregelamendu horren bidez ezarri ziren Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1303/2013 (EB) Erregelamendua aplikatzeko xedapenak, programaren ekarpenen kudeaketako eta transferentziako modalitate zehatzei, tresna finantzarioei buruzko informazioa aurkezteari, lanen komunikazio- eta informazio-neurrien ezaugarri teknikoei eta datuak erregistratu eta gordetzeko sistemari buruzkoak. Webgune honetan ere kontsulta daiteke: <http://publications.europa.eu/code/es/es-5000100.htm> eta enblema ereduak hemen deskargatu daitezke: https://europa.eu/european-union/about-eu/symbols/flag_es#download.

b) Edozein hedabidetan inbertsio onartuei buruzko erreferentzia eginez gero, beti aipatu beharko da Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioak (logotipo ofizialak hemen eskuragarri <https://soportesgffee.zendesk.com/hc/es/articles/5221643005073-Logotipos-de-los-diferentes-departamentos-ministeriales>) eta Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak finantzatu dituela.

c) Edozein hedabidetan inbertsio onartuei buruzko erreferentzia eginez gero, Suspertze Planaren logotipoa erabili beharko da hedapen-baliabide modura. Esteka honetan dago eskuragarri: <http://planderecuperacion.gob.es/identidad-visual>.

d) Esparru honetan garatzen diren deialdi, lizitazio, hitzarmen eta gainerako tresna juridiko guztiek «Europar Batasunak finantzatutako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana – - Next Generation EU» erreferentzia izan beharko dute goiburuan eta garapen-gorputzean.

2.- Nolanahi ere, informazio-kartel edo plaka oro herritarrek erraz ikusi ahal izango duten leku batean ipini beharko dira, eta testua Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan idatzita egon beharko da.

13.- EZ-BETETZEAK ETA DIRUA ITZULTZEA

1. Erakunde onuradunak Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren dirulaguntza eskatutako eta emandako xede espezifiko bat betetzeko erabiltzen ez badu, dirulaguntza ematea eragin zuen jarduketa egiten ez badu, dirulaguntza zertarako eman zen, helburu horrexetarako erabili dela egiaztatzen ez badu edo, oro har, onuradunak ez badu betetzen erakunde eskudunak ezarritako baldintzaren bat, ikuskapen-lanak ahalbidetu nahi ez baditu edo onuradunak betebeharren bat betetzen ez badu, dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu dela adieraziko da, betiere aldez aurretik interesdunari entzun ondoren; gainera, hala badagokio, jasotako kopuruak eta

dagozkion interes legalak itzuli beharko dizkio Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari, hala, betez azaroaren 11ko 1/1997 Lege Dekretuak onartutako Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testuategina, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emandako dirulaguntzen berme eta itzulketei buruzko abenduaren 17ko 698/1991 Dekretua eta testu horietan ezarritako inguruabarretan. Azken horretan ezartzen dira kudeaketan parte hartzen duten erakunde kolaboratzaileek bete beharreko baldintzak, araubidea eta betebeharrak.

Halaber, abenduaren 7ko 1074/2021 Errege Dekretuari –Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren esparruan turismo-erabilerako ondare historikoa mantendu eta birgaitzeko proiektu jasangarriak finantzatzeko dirulaguntzak zuzenean ematea arautzen duenari– jarraikiz (zehazki, Turismo Sektorearen Modernizazio eta Lehiakortasunerako Planaren 14. osagaiari, 4. inbertsioari, 3. azpiproiektuari dagokionez [C14. I4.3]), jasotako zenbatekoak –eta, hala badagokio, dirulaguntzagaratik sortutako interesak– itzuli beharko dira, baita dagokion berandutze-interesa ere, dirulaguntza ordaintzen denetik dirua itzultzea erabakitzen den egunera arte, DLOren 37. artikuluan jasotako kasuetan.

2. Halaber, beste kasu batzuetan ere itzuli egin beharko dira funtsak, kondizioak bereziak izaki:

a) «Kalte nabarmenik ez eragiteko» printzipioa, etiketatze digitala edo ingurumenekoa edo Espainiako suspertze- eta erresilientzia-planaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren Beteazpen Erabakian eta 14. osagaian jasotako kondizioak betetzen ez badira, erakunde onuradunak Turismoko Estatu Idazkaritzari itzuli beharko dizkio jasotako zenbatekoak, osorik edo partzialki, kasu bakoitzean.

b) Era berean, ez badira betetzen aurreikusitako mugak eta helburuak, 2021eko otsailaren 12ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamendutik –eta Europar Batasunaren gainerako araudi aplikagarritik– eratorritako printzipioak, betebeharrak edo beste edozein alderdi, autonomia-erkidegoek edo kasuan kasuko tokiko toki-erakundeek osorik edo partzialki itzuli beharko dituzte jasotako turismo-funtsak, baldin eta irregulartasunen bat gertatzen bada, justifikaziorik falta bada edo adierazle edo mugak ez badira behar bezain fidagarriak.

c) Autonomia-erkidegoak edo toki-erakundeak gauzatutako ez-betetzeak Estatuari Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak esleitutako kopuruak kobratzea galarazten badu, autonomia-erkidego edo toki-erakundeak itzuli egin beharko du Estatuak Suspertze eta Erresilientzia Mekanisмотik jaso ez duen zenbatekoaren baliokidea.

3. Erakunde onuradunen betetze-maila erabatekoa izatera nabarmen gerturatzen denean (laguntza ematean lortu nahi zen helburua modu egokian bete bada), eta erakunde onuradunak argi eta garbi egiaztatzen badu konpromisoak betetzeko jardun duela, dirulaguntzaren xede diren jarduketak egiteko azken fasean dagoelako, itzuli beharreko zenbatekoa azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17. artikuluko 3. apartatuko n) letran adierazitako irizpideak aplikatzearen arabera izango da.

4. Emandako dirulaguntza itzultzea eskatzeko organo eskuduna Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua izango da.

14.- TURISMO-ERABILERAKO KULTURA-ONDASUNAK BABESTEKO ARAUBIDEA

Jarduketaren eraginpeko ondasunen zehaztasuna dela-eta, honako hauetan aurreikusitako babes-araubidea aplikatuko da: 6/2019 Legea, maiatzaren 9koa, Euskal Kultura Ondarearena; eta 2/2012 Dekretua, urtarrilaren 10ekoa, Euskal Autonomia Erkidegotik pasatzen den Donejakue bidearen zatia Monumentu Maltzoa kategoriako Kultur Ondasun Sailkatua izendatzekoa.

15.- BATERAGARRITASUNA BESTE LAGUNTZA EDO DIRULAGUNTZA BATZUEKIN ETA FINANTZAKETA BIKOITZIK EZA

Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren kontura finantzatzen diren proiektuek Europar Batasunaren beste programa eta baliabide batzuetatik bakarrik jaso ahalko dute laguntza, baldin eta laguntza horrek kostu bera estaltzen ez badu, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduaren 9. artikuluari, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2018ko uztailaren 18ko Erregelamenduari – Batasunaren Aurrekontu Orokorrari aplikatzekoak zaizkion finantza-arauei buruzkoari– (EB, Euratom) 188. artikuluari eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 7. artikuluari jarraikiz.

16.-AURRERAPEN TXOSTENA

Europako Batzordearen 2021eko urriaren 29ko Erabakiaren arabera (Erabakiaren bidez, 2021/241 (EB) Erregelamenduaren arabera, Europako Batzordearen eta Espainiako Erresumaren arteko xedapen operatiboak onartu dira), abenduaren 7ko 1074/2021 Errege Dekretuaren ondoriozko jarduketek 228.1 xedapen operatiboaren helburuari lagunduko diote; horren arabera, 2024ko laugarren hiruhilekoan aurrerapen-txosten bat aurkeztu beharko da, egindako proiektuak eta haien aurrerapena deskribatuz. Horregatik, eta Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak proiektuen egoera berrikusi ahal izan dezan, aurrerapen-txosten bat bidaliko da irailaren 1etik aurrera eta, beranduenez, hil horren 8tik aurrera. Txosten hori ematen den ereduari egokituko zaio.

17.- DATUEN BABESA

Alderdi sinatzaileak behartuta daude, datuen babesari dagokionez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan eta abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoa betetzera; 2016/679 Erregelamendua datu pertsonalen tratamenduan eta datu horien zirkulazio librean pertsona fisikoak babesteari buruzkoa da, eta Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorraren 95/46/EE Zuzentaraua indargabetzen du; abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoa, berriz, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa da.

Erreferentziako proiektua amaitu ondoren ere, betebeharrak horiek indarrean jarraituko dute.

Hitzarmen honetan, Beasainko Udala izango da tratamenduaren arduraduna, aipatutako araudian ezarritako baldintzetan eta bertan ezarritako betebeharrak eta baldintzei jarraikiz.

18.- AZKENTZEA ETA SUNTSIARAZTEA

1.- Hitzarmenaren xede diren jarduketak bete direlako edo hitzarmena suntsiarazteko arrazoiren bat dagoelako azkenduko da.

2.- Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak hauek izango dira:

- a) Ezarritako indarraldia amaitzea.
- b) Sinatzaile guztiak aho batez ados jartzea.
- c) Sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak edo konpromisoak ez betetzea.

Halakoetan, beste alderdiak errekerimendu bat jakinarazi ahalko dio bereak bete ez dituen alderdiari, hilabeteko epean bete ditzan bete gabekotzat jotako betebeharrak edo konpromisoak. Errekerimendu hori Jarraipen Batzordeari jakinaraziko zaio.

Errekerimenduan azaldutako epea igaro eta ez betetzeak irauten badu, errekerimendua igorri zuen alderdiak beste alderdi sinatzaileari jakinaraziko dio badagoela hitzarmena suntsitzeko arrazoiak, eta hitzarmena suntsitua dagoela ulertuko da.

d) Hitzarmenaren deuseztasuna deklaritzen duen erabaki judizial batengatik.

e) Araudian jasotako aurrekoen bestelako edozein arrazoiengatik.

3.- Hala eta guztiz ere, hitzarmena suntsiarazteko edozein kausa jazotzen den unean jarduketaren bat abian bada, alderdiek, hitzarmenaren Jarraipen Batzordeak hala proposatuta, hitzarmenarekin jarraitzea adostu ahalko dute alderdiek, harik eta jarduketa bukatu, justifikatu eta bertan jasotako klausulen arabera likidatu arte, Sektore Pportuublikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 52.3 artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik.

4.- Hitzarmena azkentzen bada erakunde onuradunak betebeharrak partzialki edo erabat bete ez dituelako, orduan Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saitetik jasotako ekarpen ekonomikoa itzuli egin beharko du.

19.- INDARRALDIA

1.- Hitzarmen honen indarraldia 2025ko urriaren 31n amaituko da.

2.- Aurreko paragrafoan aurreikusitako epea amaitu aurretik edozein unetan, hitzarmenaren sinatzaileek aho batez erabaki ahal izango dute hura luzatzea (2026ko ekainaren 30eko gehieneko mugarekin, CIDren 228 helburuak adierazten duen bezala) edo hura azkentzea, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49 h) artikuluan xedatutakoaren arabera.

20.- ESKUMENEN JURISDIKZIOA

Hitzarmena administratiboa denez, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioak ebatziko ditu hitzarmen honen garapenean sortzen diren auzi-kontuak, bat etorrita Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10.1.g) artikuluko aurreikuspenekin.

Eta, ados daudela erakusteko, hitzarmena sinatzen dute bi alderdiek.

Turismo, Merkataritza eta Kontsumoko sailburua

Beasainko Udaleko Alkatea-udalburua

JAVIER HURTADO DOMÍNGUEZ

LEIRE ARTOLA UGALDE

Adierazpen-ereduak

- A. Interes-gatazkarik eza.
- B. Datuen lagapena eta tratamendua.
- C. Zeharkako printzipioak betetzeko konpromisoa.
- D. Ingurumenari kalte nabarmenik ez eragitea (DNSH printzipioa).
- E. Iruzurraren aurkako politikari atxikipena eta honen ezagutza.
- F. Benetako titulartasuna.
- G. Finantzaketa bikoitzik ez izatea.
- H. Interes-gatazkari buruzko eranskinak (HFP/55/2023 Agindua, 2023ko urtarrilaren 24koa)

A. Interes-gatazkarik Ezaren Adierazpenaren eredia (IGEA)

Dirulaguntza.

Lehenago aipatutako kontratazio/dirulaguntzaren prozeduran inpartzialtasuna bermatze aldera, sinatzaileak, espedientea prestatu eta izapidetzeko prozesuan parte-hartzaile den/diren aldetik, honako hau adierazi nahi du/dute:

Lehena. Hauek ezagutzen dituela:

1. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (EBko finantza-erregelamendua) 61.3 artikulua, «Interes-gatazkak» izenekoak, ezartzen duenez, «interes-gatazka egongo da funtzioak inpartzialki eta objektiboki betetzea kolokan badago familia, afektu, kidesasun politiko edo nazionalengatik, interes ekonomikoengatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik».
2. Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 64. artikulua («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa») helburua da lehiaren distorsio oro saihestea, prozedura gardena dela eta hautagai eta lizitatzailerik guztientzat tratua berdina dela bermatzeko.
3. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23. artikulua («Abstenitzea») ezartzen du prozeduran esku hartzetik abstenituko direla «*administrazioetako agintari edo langileak, hurrengo zenbakian aipaturiko egoeretakoren batean daudenean*», zehazki, egoera hauek:
 - a) Interes pertsonala izatea aztertuko den gaian edo gai horretako ebazpenak eragin diezaiokeen beste batean; sozietate edo erakunde interesdunen bateko administratzaile izatea, edo interesdunen batekin ebatzi gabeko auziren bat izatea.
 - b) Ezkontza-lotura edo antzeko egitatezko egoera izatea, eta ahaidetasuna izatea, laugarren gradurainoko odolkidetasunezkoa edo bigarren gradurainoko ezkontza-ahaidetasunezkoa, interesdunetako edozeinekin, erakunde edo sozietate interesdunen bateko administratzaileekin, bai eta prozeduran esku hartzen duten aholkulari, legezko ordezkari edo mandatariekin ere, edo haien bulego profesional berekoa izatea edo haiekin elkartuta egotea aholkularitza, ordezkaritza edo mandataritzarako.

- c) Aurreko apartatuan aipaturiko pertsonaren batekin adiskidetasun mina edo etsaitasun agerikoa izatea.
- d) Dagokion prozeduran aditu edo lekuko moduan aritzea.
- e) Gaian zerikusi zuzena duen pertsona fisiko edo juridikoren batekin zerbitzu-harremana izatea edo pertsona horri azken bi urteetan edozein era, baldintza eta tokitan lan-zerbitzuak eskaini izatea.

Bigarrena. Ez dagoela EBren Finantza-Erregelamenduaren 61.3 artikuluan interes-gatazkatzat sailkatzen diren egoeretako ezeinetan, eta ez dagoela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 23.2 artikuluan ezartzen diren eta emakida/lizitazio-prozeduran eragina izan dezaketen abstenitzeko arrazoietako ezeinen mende.

Hirugarrena. Interes-gatazken egoera oro edo egoera hori eragin duen edo dezakeen abstentzio-kausa oro ebaluazio-batzordeari/kontratazio-organoari luzapenik gabe jakinarazteko konpromisoa hartzen du.

Laugarrena. Badakit interes-gatazkarik ez daukadala adierazteko aurkeztu dudana agiria faltsua dela frogatzen bada, aplikatu beharreko araudiak ezartzen dituen diziplina-, administrazio- eta justizia-ondorioak izango ditudala.

(Data eta sinadura, izen osoa eta NANA)

B. Datuen tratamendu eta lagapenerako adierazpenaren eredia, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko –SEEPeko– jarduketak betetzeari dagokionez

Ni, (NANA:.....),
erakundearen (IFZ:.....; egoitza
fiskala:.....)

kontseilari delegatua/kudeatzailea naiz. Erakundea SEEPeko baliabideekin finantzatutako laguntzen onuraduna da, eta kontratista/azpikontratista modura parte hartzen du «.....» XX. osagaian zehaztutako helburuak lortzeko behar diren jarduketak garatzen. Hala, adierazten dut araudi aplikagarria ezagutzen dudala, bereziki Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezarri zuen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduko 22. artikulua apartatu hauek:

1. 2. apartatuko d) letra: «Suspertze eta Erresilientzia Planaren esparruan inbertsio-proiektuak eta erreformak egitera bideratutako neurriei dagozkien funtsen erabilera kontrolatu eta auditoretza egiteko, bilaketak egitea ahalbidetzen duen euskarri elektroniko batean eta datu-base bakarrean biltzea datu kategoria harmonizatu hauek:

i. Funtsen azken hartzailearen izena;

ii. Kontratataren eta azpikontratataren izena, funtsen azken hartzailea botere adjudikatzaileri bat denean, estatu-mailako edo Batasuneko kontratazio publikoaren arloko zuzenbideari jarraikiz;

iii. Funtsen hartzailearen edo kontratataren titular errealek izen-abizenak eta jaiotegunak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 Zuzentarauaren (EB) 3. artikuluko 6. Puntuari jarraikiz (26):

iv. Suspertze eta Erresilientzia Planaren esparruan inbertsio-proiektuak eta erreformak egitera bideratutako neurrien zerrenda bat, neurrien finantzaketa publikoaren zenbateko osoa adierazita, eta mekanismoaren esparruan eta Batasunaren beste funts batzuetatik ordaindutako funtsen zenbatekoa adieraziz».

2. 3. apartatua: «Artikulu honetako 2. apartatuko d) letran aipatutako datu pertsonalak Batzordeak eta estatu kideek soilik erabiliko dituzte, 15. artikuluko 2. apartatuak eta 23.eko 1. apartatuak aipatutako akordioak aplikatzeari lotutako funtsen erabileraren kontrol-prozedurei eta aurrekontu-kudeaketa onartzeari buruzko auditoria egiteko eta horretarako behar den denboran. Batzordeak kudeaketa onartzeko prozeduraren esparruan, EBFTren 319. artikuluari jarraikiz, mekanismoa txostenak aurkeztearen (finantza-informazioaren esparruan) eta kontuak modu integratuan ematearen mende egongo da (Finantza Erregelamenduaren 247. artikulua), eta, bereziki eta modu berezian, kudeaketaren eta errendimenduaren urteko txostenean».

Azaldutako esparru juridikoarekin bat etorritik, adierazi du datuen lagapena eta tratamendua onartzen dituela, berariaz aipatutako artikuluetan zerrendatutako helburuekin.

....., 202X(e)ko.....aren ...(a)

Sin.:

Kargua:

C. Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planeko –SEEPeko– jarduketak egikaritzeari dagokion konpromiso-adierazpenaren eredia

Ni, (NANa:.....),
erakundearen (IFZ:.....; egoitza
fiskala:.....

.....)
organoaren titularra/kontseilari delegatua/kudeatzailea naiz. Erakundea SEEPeko baliabideekin finantzatutako laguntzen onuraduna da, eta kontratista/azpikontratista/mandatuaren hartzaile modura parte hartzen du «.....» XX. osagaian zehaztutako helburuak lortzeko behar diren jarduketak garatzen. Hala, adierazten dut ordezkatzeko dudak pertsonak/erakundeak arau juridiko, etiko eta moralen estandarrik zorrotzenak betetzeko konpromisoa duela, eta hark behar diren neurriak hartu dituela iruzurra, ustelkeria eta interes-gatazkak saihesteko eta antzemateko, eta ez-betetzeak, halakorik balego, kasuan kasuko agintariei jakinaraztekoa.

Horrez gain, SEEPen edukiari erreparatuz, plan horren esparruan garatutako jarduketak betetzean ingurumenari kalte adierazgarriarik ez egiteko («DNSH» ingeleseko siglak, «*do no significant harm*») eta ekonomia zirkularraren printzipioak errespetatzeko konpromisoa hartzen du, eta adierazten du, orobat, ez duela finantzaketa bikoitzik eta ez duela estatu-laguntzen araubidearekiko bateraezintasun-arrisku ezagunik.

....., 202X(e)ko.....aren ...(a)

Sin.:

Kargua:

D. Ingurumenari kalte nabarmenik ez eragiteko erantzukizunpeko adierazpena (DNSH printzipioa)

Ni, (NANA:.....),
erakundearen (IFZ:.....; egoitza
fiskala:.....
.....)

kontseilari delegatua/kudeatzailea naiz. Erakundea SEEPeko baliabideekin finantzatutako laguntzen onuraduna da, eta kontratista/azpikontratista modura parte hartzen du «.....» XX. osagaian zehaztutako helburuak lortzeko behar diren jarduketak garatzen. Hala, honako hauek adierazten ditut

Lehen a. Aurkeztutako eskaintzak baldintza hauek betetzen ditu:

1. Bertan gauzatzen diren jarduerak ez diete kalte nabarmenik eragiten beheko ingurumen-helburuei, ingurumenaren aldetik jasagarriak diren jarduera ekonomikoen sailkapen-sistema bat (edo «taxonomia») ezarri inbertsio jasagarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzko 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikulua araberak:

- a) Klima-aldaketa arintzea.
- b) Klima-aldaketara egokitzea.
- c) Baliabide hidrikoak eta itsas baliabideak jasagarritasunez erabiltzea eta babestea.
- d) Ekonomia zirkularra, hondakinen prebentzioa eta birziklapena barne.
- e) Atmosferako, uretako edo lurzoruko kutsadura prebenitzea eta kontrolatzea.
- f) Biodibertsitatea eta ekosistemak babestea eta lehengoratztea.

2. Jarduerak, hala badagokio, Osagaia neurtzeko eta azpiproiektua egiteko ezarritako ezaugarrietara eta baldintzetara egokitzen dira, eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren islatzen dira.

3. Proiektuan gauzatzen diren jarduerak aplikatzeko den indarreko ingurumen-araudia beteko dute.

4. Gauzatzen diren jarduerak ez daude baztertuta Planaren bitartez finantzatzeko aukeratik, honako printzipio hau aplikatzeari buruzko gida teknikoaren arabera: «Kalte nabarmenik ez eragitea», Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoari buruzko Erregelamenduari (2021/C58/01), Espainiako Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoaren ebaluazioa onartzeari buruzko Kontseiluaren Betearazpen Erabakiaren Proposamenari eta dagokion eranskinari jarraikiz.

5. Gauzatzen diren jarduerak ez dute zuzeneko ondorioz eragiten ingurumenean, ez eta lehen mailako zeharkako ondorioz ere beren bizi-ziklo osoan; halakotzat jotzen dira jarduera amaitu ondoren gauzatu daitezkeenak.

Bigarrena. Badaki eta onartzen du adierazpen honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada, jasotako zenbatekoak eta dagozkien berandutze-interesak itzuli beharko dituela.

....., 202X(e)ko.....aren ...(a)

Sin.:

Kargua:

E. Iruzuraren aurkako politikari atxikitze eta hura ezagutzeko
erantzukizunpeko adierazpenaren eredu

_____ jaunak/andreak, bere izenean edo _____
ordezkatzuz,

ADIERAZTEN DU:

LEHENENGOA.- Iruzuraren aurkako neurrien plan propioa dute, bat datorrena Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduan eta irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduan xedatutakoarekin, Esku-hartze Orokorren eta Zerbitzu Juridikoen Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoen arloko gomendioekin eta erakunde publikoetan baliokideak diren kontrol-organoekin eta jarraibideekin, bai eta EBk iruzurraren aurka ezartzen duenarekin ere.

Halakorik ezean, *Eusko Jaurlaritzaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana gauzatzean eskatzen diren iruzurraren, interes-gatazkaren, finantzaketa bikoitzaren eta estatu-laguntzen eta kalte ez esanguratsuaren baldintzak betetzeko neurrien planari atxikitzen zaizkio*. Plan hori 2022ko martxoaren 29an onartu zuen Gobernu Kontseiluak.

BIGARRENA. - Iruzuraren aurkako politikaren edukia ezagutzen dutela, bai eta horretarako ezartzen diren betebeharrak ere, eta ahalik eta publizitaterik handiena emateko konpromisoa hartzen dutela.

HIRUGARRENA. - _____jauna/andrea Eusko Jaurlaritzarekin iruzurraren aurka borrokatzeko solaskide izendatzen dut.

_____ (e)n, 20____ (e)ko _____ren _____ (e)an

Sin.:

Kargua:

F. Benetako titulartasunaren erantzukizunpeko adieraztasunaren eredia

_____, jaunak/andreak (NAN: _____), _____
erakundearen titular/ordezkar den aldetik (IFZ: _____; zerga-egoitza: _____), SEEPetik datozen baliabideen hartzaile den aldetik, (deialdiaren izena) _____ izeneko jardueraren esparruan

ADIERAZTEN DU

LEHENENGOA. – Ezagutzen duela irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduaren 8. artikuluan xedatutakoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko (EB) 2021/241 Erregelamenduaren 22.d) artikuluko eskakizuna betetzeko. Horren arabera, funtsen azken hartzailearen identifikazioari dagokion informazioa eman behar da:

- Funtsen hartzailearen izen-abizenak,
- eta benetako titularren jaioteguna, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluen 6. puntuan egiten den titular errearen definizioari jarraikiz.

BIGARRENA. – Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluko 6. puntuan adierazitakoaren arabera, honako hauek direla benetako titularrak (hau da, azken buruan jabetza edo bezeroaren kontrola duten pertsona fisikoak edo transakzio edo jardueraren baten ardura duten pertsona fisikoak):

8Pertsona juridikoen kasuan, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 3. artikuluen 6. puntuaren arabera, gutxienez honako hauek hartuko dira kontuan:

(i) <<Azken buruan pertsona juridiko baten jabetza edo kontrola duten pertsona fisikoak, entitate horretan akzioen, boto-eskubideen edo jabetza-eskubideen ehuneko nahikoaren zuzeneko edo zeharkako jabetzaren bidez (eramailearentzako akzio-zorroak barne) edo beste bitarteko batzuen bidez, merkatu arautu batean kotizatzen duten eta Batasuneko Zuzenbidearekin bat datozen informazio-betekizunen edo jabetzaren gaineko informazioaren gardentasun egokia bermatzen duten nazioarteko arau baliokideen mende dauden sozietateak izan ezik.

Zuzeneko jabetzaren zantzia izango da pertsona fisiko batek kapital sozialean % 25eko partaidetza gehi akzio bat edo bezeroarengan % 25etik gorako jabetza-eskubidea izatea. Zeharkako jabetzaren zantzia izango da pertsona fisiko baten edo batzuen kontrolpean (edo sozietate batzuen kontrolpean, baldin eta horiek pertsona fisiko beraren edo berberen kontrolpean badaude) dagoen % 25eko gehi akzio bateko partaidetza izatea kapital sozialean, edo % 25etik gorako jabetza-eskubide bat bezeroarengan. Estatu kideek ehuneko txikiagoa jabetzaren edo kontrolaren zantzu izan daitekeela erabakitzeak duten eskubideari kalterik egin gabe aplikatuko da aurreko hori. «Beste bitarteko batzuen bidezko kontrola» badela zehaztu ahal izango da, besteak beste, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2013/34/EB Zuzentarauaren 22. artikuluko 1. paragrafoetik 5.era bitartekoetan ezarritako irizpideen arabera.

Izan daitezkeen bitarteko guztiak agortu ondoren, eta betiere susmo-arrazoirik ez badago, i) tartekiaren arabera inor identifikatzen ez bada, edo identifikatutako pertsona edo pertsonak benetako titularrak edo goi-mailako zuzendaritza-kargua betetzen duten pertsona fisikoak diren zalantzak badaude, behartutako erakundeek i) tartekiaren eta tarteki honen arabera benetako titulartasuna nork duen identifikatzeko hartutako neurrien erregistroak gordeko dituzte;

BENETAKO TITULARTASUNA				
Bazkidearen edo akziodunaren izen osoa	NAN/ AIZ/ PASAPORT EA	Nazionalitat ea edo egoitza soziala	Jaiotze- data	Partaide tza (%)

HIRUGARRENA. – Badakiela ezen, eskatuz gero, Eusko Jaurlaritzako erakunde betearazleari entregatu beharko diola benetako titularra/titularrak egiaztatzen d(it)uen notario-aktaren kopia, azken esleipenduna edo hartzailea merkataritza-sozietate bat bada, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamenduan eta irailaren 29ko HFP/1031/2021 Aginduan ezarritakoaren arabera.

_____(e)n, 20____(e)ko____ren____(e)an

Sin.:

Kargua:

G. Finantzaketa bikoitzik ez duela adierazteko erantzukizunpeko adierazpenaren eredua

_____, jaunak/andreak (NAN: _____),
_____, erakundearen titular/ordezkari den aldetik (IFZ:
_____, zerga-egoitza: _____), SEEPetik
datozen baliabideen hartzaile den aldetik (deialdiaren izena)
_____ izeneko jardueraren esparruan, bere erantzukizunpean
aitortzen du:

- ☐ Ez duela jaso Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua (Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa (SEM) ezartzen duena) ez den Europar Batasuneko beste edozein funtsaren laguntzarik, eta ez dela aurkeztuko aurrekontu nazionaletik edo EBtik eratorritako aurrekontua duen etorkizuneko beste edozein funtsaren finantzaketarako.

Jarraitu soilik aurreko baieztapenean laukitxoa markatu ez bada; hau da, proiektuak beste funts baten finantzaketa jaso badu edo etorkizunean jasotzea aurreikusten bada helburu bererako:

- ☐ Laguntzak/dirulaguntzak arautzen dituzten oinarrietan ezarritako mugetara egokitzeko konpromisoa hartzen duela.
- ☐ Gastuen jarraipena egiteko konpromisoa hartzen duela, finantzaketa bikoitzik ez dagoela ziurtatzeko, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema eratzen duen irailaren 29ko HFP/1030/2021 Aginduaren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera.
- ☐ Proiektuaren finantzaketaren trazabilitatea bermatzen duten mekanismoak eta kudeaketa-ahalmena daudela.
- ☐ Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 30.4 artikulua arabera, finantzaketa bikoitzik ez dagoela egiaztatzeke justifikazio-agiriak aurkezteko konpromisoa hartzen duela.
- ☐ Honako datu hauek identifikatzen direla:

DIRULAGUNTZA PUBLIKOAK: Xede berberarekin beste administrazio edo erakunde publiko bati emandako edo eskatutako laguntzak eta dirulaguntzak			
Administrazioa edo erakunde publikoa	Xedea	Egoera	Guztira (€)
Eskatutakoa, guztira: _____ €		Emandakoa, guztira: _____ €	

_____ (e)n, 20____ (e)ko _____ ren _____ (e)an

Sin.:

Kargua:

I. ERANSKINA

Interes Gatazkarik Eza Adierazteko agiria (IGEA)

Espedientea:

Kontratazioa/dirulaguntza.

Izen-abizenak:

IFZ:

Kargua:

Goian aipatutako kontratazio-/dirulaguntza-prozeduran inpartzialtasuna bermatze aldera, behean sinatzen duenak/dutenek, espedientea prestatu eta izapidetzeko prozesuan parte denez/direnez, honako hau adierazten dute:

Lehenengoa.

Jakinak ditut honako hauek:

5. Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren uztailaren 18ko 2018/1046 (EB, Euratom) Erregelamenduaren (EBren finantza-erregelamendua) 61.3 artikulua ("Interes-gatazka") honakoa ezartzen du: «interes-gatazka egongo dela funtzioen jardun inpartzial eta objektiboa arriskuan jartzen denean familia-arrazoiengatik, arrazoi afektiboengatik, kidesun politiko edo nazionalagatik, interes ekonomikoagatik edo interes pertsonaleko zuzeneko edo zeharkako edozein arrazoiengatik».
6. Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauen transposizioa egin zuen, Espainiako ordenamendu juridikora egokitzeko. Bda Lege horren 64. artikulua («Ustelkeriaren aurkako borroka eta interes-gatazken prebentzioa») honela definitzen du interes-gatazka: «Kontratazio-organoaren zerbitzura dauden langileek, lizitazio-prozeduraren garapenean parte hartzen duten edo prozeduraren emaitzan eragina izan dezaketenek, zuzenean edo zeharka interes finantzario, ekonomiko edo pertsonala izatea, lizitazio-prozeduraren testuinguruan haien inpartzialtasuna eta independentzia arriskuan jar dezakeena».
7. 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren 3. apartatuak honako hau ezartzen du: «Interes-gatazkaren arriskuaren analisi sistematiko eta automatizatua aplikatuko zaie erakunde erabakitzaileen, betearazleen eta instrumentalen zerbitzura dauden enplegatu publikoei eta gainerako langileei, baldin eta banaka edo kide anitzeko organoetako kide gisa parte hartzen badute deskribatutako prozeduretan, kontratuak esleitzeko edo dirulaguntzak emateko prozeduretan».
8. Aipatutako ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren 4. apartatuak honako hau ezartzen du:

- «Tresna informatikoaren bidez, familia-harreman edo sozietate-lotura zuzenak edo zeharkakoak aztertuko dira, baldin eta aurreko apartatuan aipatzen diren pertsonen eta prozedura bakoitzeko parte-hartzaileen artean interes-gatazka sor dezakeen interes pertsonal edo ekonomikoa badago».
- «Erlazioak edo loturak identifikatzeko aldera, tresna horrek, besteak beste, otsailaren 12ko 241/2021 (EB) Erregelamenduaren 22.2.d) .iii) artikuluan aipatzen diren pertsona juridikoen benetako titulartasuneko datuak jasoko ditu, Zerga Administrazioako Estatu Agentziaren datu-baseetan daudenak, bai eta notarioen eta erregistratzaileen elkargoekin sinatutako hitzarmenen bidez lortutakoak ere».

Bigarrenkoa.

Adierazpen hau sinatu dudanean, eta eskura dudanean informazioaren arabera, ez nago interes-gatazkatzat jo daitekeen ezein egoeratan, ehun eta hamabigarren xedapen gehigarriaren laugarren apartatuan aurreikusitakoaren arabera, dirulaguntzak lizitzeko/emateko prozeduran eragina izan dezakeenik.

Hirugarrenkoa.

Konpromisoa hartu dut kontratazio-organoari jakinarazteko, luzamendurik gabe, baldin egoera hori sortzen duen edo sor dezakeen edozein interes-gatazka edo abstenitzeko arrazoiren berri badaki, prozeduraren edozein unetan.

Laugarrenkoa.

Badakit Interes Gatazkarik Ezaren Adierazpena faltsua dela frogatzen bada, aplikatzekoa den araudiak ezartzen dituen ondorio administratiboei eta judizialei aurre egin beharko diedala.

Identifikazio eta sinadura (elektronikoa).

II. ERANSKINA

Interes Gatazkarik Eza egiaztatzeko eredia

Espedientea:

Kontratazioa/dirulaguntza.

Izen-abizenak:

IFZ:

Kargua:

Interes-gatazka egoteko arriskua aztertu dugu (MINERVA tresna informatikoaren bidez), urtarilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan ezarritako baldintzetan, agindu horrek baititu araututa Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Plana gauzatzeko prozeduretan interes-gatazka izateko arriskua sistematikoki nola aztertu. Agindu hori 2023. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 31/2022 Legearen ehun eta hamabigarren xedapen gehigarria aplikatuz eman zen. Bada, arriskua aztertu ondoren, bandera gorri bat detektatu denez (bandera gorriaren deskribapena, bandera hori jarrarazi duten eskatzaileen zerrenda), berriro diot ez nagoela prozeduran nire jarduketa objektiboa kolokan jar dezakeen interes-gatazka eragin dezakeen inongo egoeratan.



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU1d1b0304-5ff3-4bd1-bb83-9ee8b0548d5d**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: **<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01910>**